

Tokikom-ek gogoeta txostena aurkeztuko du Aretxabaletako campusean

2013/11/19

Tokiko euskal hedabideek hitzordua dute, azaroaren 26an, Aretxabaletako campusean. Izan ere, egun horretan, Tokikom tokiko euskal hedabideak batzen dituen elkarteak aurkeztuko baitu **azken hilabeteotan egindako gogoeta txostena**. Txosten horrek jasotzen ditu, alde batetik, euskarazko tokiko hedabideen egungo egoera deskribatzen duen azterketa sakona, eta, bestetik, finkatzen ditu, epe labur eta ertainerako, lan ildo posibleak. Gainera, Mondragon Unibertsitateko Aretxabaletako campusean egingo den jardunaldia baliatuko da sektoreko eragileen artean eztabaida sustatzeko eta gogoeta bultzatzeko.

Aurkeztuko den txostenaren egikaritzan, **protagonismo handia izan dute Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko ikerlariek**. Batetik, Eneko Bidegain, Txema Egaña eta Aitor Zuberogoitia MUko ikerlari eta Ikus-entzunezko Komunikazioa graduko irakasleek egin dute *Gaztekom* izeneko ikerketa. Bestetik, ekarpen handia egin diote testuari Nekane Goikoetxea MUko Hezkuntza graduko irakasle eta Sorguneak-eko ikerlariak eta Amaia Pavón Ikus-entzunezko Komunikazioa graduko irakasleak.

Aipatutako MUko ikerlariekin batera, orpoz-orpo lan egin dute txosten horretan, besteak beste Alberto Barandiaren HEKIMEN euskarazko hedabide ez publikoen erakundeko zuzendariak, Haritz Solupe kultur-politikan adituak, Joxe Rojas Topaguneko komunikazio arduradunak eta Mikel Irizar Tokikom-eko presidentea.

Jardunaldia, hasiko da 09:00etan, eta hurrengo egitaraua izango du:

- 09:00 - Mikel Irizar (TOKIKOM): **Aurkezpen orokorra.**
- 09:30 - Aitor Zuberogoitia (MU-HUHEZI): **Interes komuneko ikerketa lerroak.**
- 09:50 - Eneko Bidegain (MU-HUHEZI): **Joeren gainean, toki-komunikabideen mapa.**
- 10:10 - Haritz Solupe: **Finantzazio formulak, erakundeekiko harremana.**
- 10:30 - Alberto Barandiaran (HEKIMEN): **Euskal Hedabideen Behatokia.**
- 10:50 - Atsedenaaldia.
- 11:00 - **Prentsaurrekoa.**
- 11:30 - **Eztabaida bertaratutako eragile guztien artean.**
- 12:30 - Amaiera.



Tokikomeko ordezkariak, 2012ko azaroan, Aretxabaletako campusean egindako bilera baten ondoren.